



**AURRETIAZKO KONTSULTA, ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUEN PROIEKTUENA, HONAKO GAIAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA BATZEN DITUENA: TOKI OGASUNAK, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA, JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ETA HIRI LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA.**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektuak prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauen eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenen bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, jarraian zerrendatzen diren arauak eta horiek aldatu dituzten xedapenak behar bezala araututa, azalduta eta armonizatuta jasotzen dituzten testu bateratuak onartu behar dituen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko,

- a) 41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, toki ogasunak arautzen dituen.
- b) 42/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, ondasun higiezinaren gaineko zergarena.
- c) 43/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, jarduera ekonomikoen gaineko zergarena.
- d) 44/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarena.
- e) 45/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarena.
- f) 46/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergarena.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2018ko martxoaren 22ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.



<b>AURREKARIAK</b>	Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren azken xedapenetatik bigarrena, arauak sinplifikatzeari eta arauketaren kalitatea hobetzeari buruzkoa.
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Antolamendu juridikoko arauak berrikustea, sinplifikatzea eta, hala behar denean, bateratzea, arau esparru laua, argia eta gutxi sakabanatua lortzeko, herritarrek erraz ezagutu eta ulertu ahal izango dutena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa betetzeko eta hizkuntzaren erabilera ez sexista zabaltzeko behar bezala egokitua.
<b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren azken xedapenetatik bigarrenak baimena ematen dio Foru Gobernuaren Kontseiluari dagozkion testu bateratuak onartzeko, Foru Arau hori indarrean sartu eta urtebeteko epean. Ondorioz, Araua onartzea beharrezkoa eta egokia da.
<b>HELBURUAK</b>	Lehen aipatutako xedapenei buruzko testu bateratuak onartzea.
<b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b>	Ez dago ordezkoko araugintzazko konponbiderik, Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren agindua baita.